

Euskal erriaren arerio nagusienak ez dagoz politikan

Bilbao Euskal Kultura Asteko irugarren itzaldia Jon San Martinek emon eban, Santiago Apostol teatroan.

Jon San Martin, Euskal Akademiako sekretarioa, gizon jaintsua da. Liburu asko, aldizkarietan idazlan asko idatzi dauz, euskeraz. Orrez gaindiera, euskal kulturako zenbat gai estudiatu dituan, batezbe literaturearen aldetik!

Bere itzaldia, benetan izan zan interesgarria. Erri batek andia izan bear badau —esan eban San Martinek—, naizeta jente gitxikoa izan, kultura aldetik lortuko dau anditasun ori. Arrain andiak txikia jatea, ori itxasoan arraien artean bakarrik jazotzen da. Gizonak naiz erriak, tamañoan txikiak izanarren, kultura badauke, andiak izango dira; eta ainbat andiagoak, zenbat eta kultura geiago euki.

Euskal Erriaren arerioak —jarraitu eban San Martinek— ez dagoz bakarrik politika kanpoan. Gure arerio andienak, ARDAOA ta FUTBOLA dira. Ona emen zegaitik.

Politikako arerioak gure kontra zeredozer esan naiz egiten dabenean, zirkatu egiten gaitue, iratzarri egiten dabez gure biotzak, zutunik ipinten gaitue. Besteak ez: ardaoa eta futbolak ez gaitue zutunik ipinten. Ori barik, aulak eta indarbakoak biurtzen gaitue, opioaren antzera, osagilleak lo eragiteko emoten diuten medikamentuen antzera.

Futbolean, Atleti dala-ta, or doaz millakada lagun, bein Madrillera, urrengoan Donostira, Atleti animetan. Eurak uste dabe, Bilbao izena goratutenean doazala; ta orixe da negargarria, orixe da opioa. Ez doaz, ez, Bilbao, Bizkaia, Euskal Herria goratutenean, eurak olan uste izanarren. Ainzuzenbe, tabernetan abesturiko lau kantak, lau bilbainadak ez dabe sekula gure Herria goratuko. Gure Erriaren etorkizuna, beste bide batzutatik billatu bear dogu.

San Martinek ez eban orrenbestekorik esan; bearbada, bera bilbaotarra ez danezkerro, gu geiegi ez mindutearren. Baiña nik neuk diñot, San Mames lurperatu ta bere lekuaren Euskal Unibertsitate bat jasoten ez dogun bitartean, ez gareala erri andi bat izango.

Au, otopia bat dala? Ez da izango, geuk gura ez badogu. San Martinek zera esan eban, eta egia da, Historia ez dala berez egiten, historia geuk, gizonok, egiten dogula. Ta gizonak, zeu ta neu gara. Orregaitik, zuk eta nik gura badogu, utopia ori egia biurtuko da.

Eta futbol gaiari jarraituz, San Martinek esan eban, Atleti Madrillera doanean, Atletik irabazi ta Madrillek galdu daiala gura izaten dogula. Ta ori, ez da olan izan bear. Guk ez dogu gura izan bear Madrillek galtzea. Ta gitxiago Donostiatik galtzea, Atleti ara doanean. Guk ez dogu lan egin bear, iñok galdu daian. Gure lana, Euskal Herria jasotea izan bear da. Besteak, egingo dabe eurena. Guk, lana naikoa daukagu geurea egiten.

San Martinen itzaldia, benetan izan zan interesantea. Eta nik, gaurko lantxu onetan, berak ikutu ebazan gai askoren artean, oneexek, ardaoa ta futbola erabilli gura izan dodaz emen, gure artean eurok biok izugarrizko plaga txarra diralako.

Jaunak, ordu gitxiago tabernetan, ordu gitxiago futbola ikusten eta periodikuetan futbolari buruz irakurten. Ordu gelaiko ikasten, euskal kultura landutenean.

Itz egiteagaz aspertuta gagoz. «Euskaldunak bear doguz, euskotarrak baiño geiago», esan eban San Martinek.

Ez tabernetako sasi-abertzalerik. Ez Atletiren ikurriñik.

Atletiren gol bat baiño askozaz importanteagoa da euskaldun barri bat lortzea.

XABIER GERENO